



Lanaren nondik norakoak:

- Testuaren luzera 150 eta 200 hitz artean egongo da.
- Testuak hiru atal izan behar ditu: asfalto-meategiari buruzkoa, kaltzitari buruzkoa eta igeltsuari buruzkoa. Galdera hauek erantzun beharko dira gutxienez:
 - Asfalto-meategiak noiz izan zuen jarduna? Nola sortu zen asfaltoa? Zer arrokatan ageri da? Zertarako erabili izan zen asfalto hori?
 - Zer arroka osagai nagusia da kaltzita? Nolako propietateak ditu, identifikatzen lagunduko digutenak? Zein dira haren erabilera posibleak?
 - Zer egituratan agertzen dira Maeztuko igeltsuak? Nola sortu zen egitura hori? Nolako propietateak ditu igeltsuak, identifikatzen lagunduko digutenak? Zein dira haren erabilera posibleak?
- Ziurtatu idatzitako hitz guztiak ulertzen dituzuela. Horretarako, hitz ezezagunak bilatu Interneten, eta, oraindik ez baduzue zerbait ulertzen, galdetu irakasleari.
- Testuaren ondoren, hau gehitu behar duzue dokumentuan:
 - Ezezagunak ziren hitzen zerrenda eta hitz bakoitzaren azalpen ulergarria aldamenean.
 - Informazioa eskuratzeko erabili dituzuen web-orri guztien helbideak idatzi.
- Osatu testua taldean, eta irakasleari erakutsi lehen zuzenketa egin dezan. Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, prestatu behin betiko testua eta hiru audioak grabatu.